

GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEARIBURUZKO ARAUTEGIA UPV/EHUren LETREN FAKULTATEAN

Zioen azalpena:

Urriaren 29ko 1393/2007 errege dekretuak, 861/2010 errege dekretuak eraldatuta, III. kapituluan, graduako ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horietan, gradu amaierako lan bat egin eta defendatu beharko dela eta beste atal batean gehitzen du gradu amaierako lanak 6 eta 30 kreditu bitartean izango dituela, ikasketa planaren bukaerako fasean egin beharko dela eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko dela. Ez du jasotzen lana egin eta ebaluatzeko beste xedapenik eta hortaz, unibertsitate bakoitzak arautu behar zuen zein bere autonomiaz baliatuta.

Testuinguru honetan, gradu amaierako lanak (aurrerantzean GrAL) modu homogeneoan planifikatu eta ebaluatuko direla bermatuko duten irizpide eta prozedurak bateratzeko xedeaz eta titulazio bakoitzak berezitasunak berezitasun, ikastegiz ikastegiko batzarrek behar bezala jaso eta arautu eta argitaratu beharrekoak, izaera orokorreko zenbait arau ezarri zen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitaterako gradu amaierako lana egin eta defendatzeko arautegian jasota, gobernu kontseiluak 2015.eko martxoaren 12an onetsi eta, Graduako Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordearen 2015.eko martxoaren 26ko erabakia bitarte, 2015.eko apirilaren 13ko EHAAn argitaratutakoan.

Berori onartu eta berorretara egokitu ostean, UPV/EHUren Letren Fakultateak honako arautegi hau onartzen du Akademia Antolakuntzako Batzordeak 2016ko maiatzaren 17an eta fakultateko batzarrak 2016ko maiatzaren 19an egindako bileretan onetsita.

1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua.

1.-Arautegi honek UPV/EHUK ematen dituen graduako ikasketa planetan zehaztutako gradu amaierako lanak definitu, egin, defendatu, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu.

2.- Arautegi honen edukia, besteak beste, ebaluazio sistemaren,

kredituen transferentzia eta onarpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

3.- UPV/EHUren Letren Fakultateak ikastegiko akademia antolakuntzako batzordearen esku uzten du GrALerako arautegi hau garatu, aplikatu eta betetzeko eginkizuna.

2. artikulua. Gradu amaierako lana zertandean

1.- GrALa gauzatzeko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduako ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira (ikus 1. ERANSKINA).

2.- GrALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira egingo da, baita datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatzeko eta interpretatzeko trebatzeari begira ere, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei – normalean, bere ikasketa gaiei lotutakoei- buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezzen.

3.- GrALa jabetza intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lanaren egilea izango da, Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

3. artikulua. Matrikula

1.- GrALaren matrikula unibertsitateak matrikula egiteko ezarrikoduen epe orokorrean egingo da eta ikasleak, beti ere, UPV/EHUk gradu amaierako lanaren defentsa egin ahal izateko eskaturiko betebeharrak betetzen baditu, esleituta dituen kredituei dagozkien prezio publikoak ordainduta.

2.- Edozelan ere, Gradu Amaierako Lanaren matrikula egin ahal izateko, ikasleak matrikulatuta izan beharko ditu ikasketa plana bukatzeko

geratzen zaizkion irakasgai guztiak.

3.- Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte akademiko bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat. Lana kasuan kasuko ikasturteko deialdietan aurkeztu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.

4. artikulua. Tutoreaz, hura esleitzeaz eta lanerako gaiaukeratzaz.

1.- GrALa indarrean dagoen ikasturtean graduan irakasten duen sail bateko irakasleek zuzenduko dute eta bere ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, lana egin ahal izateko beharko lukeen orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere. Tutoreak, gutxien dela, hiru tutoretza ezarri beharko ditu GrALa egiteko epean zehar.

2.- Gradu amaierako lanak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.

3.- Tutoreak eta GrALen bidez garatu eta landu ahal diren gaiak esleitzeko prozedura honako irizpide hauei loturik egingo da:

- a Oro harturik, 4.1. artikulua xede honetarako gaitutako Letren Fakultateko irakasleek, gehien dela, 12 GrAL zuzendu ahal dituzte (0'25 k x lana = 3 k).
- b Sailek, irakats eskaintzaren banaketa egiterakoan, ezarriko dute irakasle bakoitzak tutorizatu behar duen ikasle-kopurua, gehienera 12 GrAL izanik, betiere irakats betebeharrak kontutan hartuta.
- c Hizkuntzari dagokionean, honako irizpide hauek hartu beharko dira kontuan: 1. Gaztelaniaz eta euskaraz eskaintako gaien eskaintzaren proportzioa bat etorriko da, ahal den heinean, hizkuntza ofizial bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopuruarekiko. 2. Gradu baten memoria egiaztatuak GrALa hizkuntza ofizialetatik besteko hizkuntza batez egin beharra xedatzen badu, eskaintza hizkuntza horretarako egingo dasoil-soilik.
- d Ondoren eta ezarritako irakaskuntza banaketaren arabera, tituluko irakaskuntzaren ardura duten tutoreek GAUR aplikazioan grabatuko dute ikasleei eskainiko zaizkion gaien zerrenda, bakoitza egin

beharreko hizkuntza zehaztuz, bai legokiokeen laukitxoan nola eskainitako GrALeko tituluan. Gai bat hizkuntza ez ofizial batean eskainita, tutoreak hizkuntza horren jakitea egiaztatu beharko du UPV/EHUK ezarritako bideetako baterabilita.

- e Halaber, saileko zuzendariak gaien zerrenda eta gai hauen tutoreena, GAUR aplikazioan baliozta dadin.
- f Tutoreak txosten idatzia egingo du defentsa baino lehen, arautegi honetako 2. eranskina erabilita, GAUR aplikazioan jarriko duena sistema informatikoak hala eskatuko dionean. Txosten honetan, tutoreak balioespen arrazoitua egin beharko du, defentsa publikorako ez gai edo gai den agertaraziz.
- g Ikasleek, GAUR aplikazioa erabiliz, gehienez, hambost gai lehenetsi ahal izango dituzte irakasleek eskainitakoen artean. Gaiak behin betiko esleitzeko prozesua espediente akademikoaren batez besteko kalifikazioaren arabera egingo da hertsiki.
- h Proposatutako gaien kopurua eskariak baino gutxiago balitz graduren batean, ikastegiak gai gehiago proposatu ditzatela eskatuko die irakaskuntzarik duten sailei.

4.- Tutore eta ikaslearen arteko lotura aldia GrAL defendatu arte luzatuko da. GrAL esleitu deneko akademi ikasturte berean ezin defenda baliteke, lotura hori luzatuko ahal da alde biak ados egonez gero edo lotura eragotziko lukeen bestelako baldintzarik ez balego.

Lotura deuseztatzeko, alde batek edo biek nahitaez agertu beharko dute ukoa, idatziz eta behar bezala arrazoituta, Dekanotzaren aurrean, indarrean dagoen GrALaren egutegiak zehazten duen data baino lehen. Lotura hautsiz gero, legokiokeen jakintza arloak ebazpide egokia jarri beharko du, lana benetan hasia egongo balitz.

5.- Graduan irakaskuntzarik daukaten sail guztiek eskaini beharko dute GrALa.

5. artikulua. GrALa defendatzeko eskaria eta deialdi kopurua

1.- Gradu Amaierako Lana graduko azken mailan defendatu eta ebaluatuko da, ikasleak ikasketa planean geratzen zaizkion irakasgai guztietarako matrikula behin eginda.

2.- Akademi ikasturte bakoitzeko, ikasleek bi deialditarako eskubidea izango dute: bata ohikoa, ekain eta uztail bitartean, eta bestea ezohikoa, irailean.

3.- Halaber, otsailean ere deialdi bat egongo da, arautegiak eskatutako baldintzak bete eta ohiko deialdia aurreratu gura duten ikasleentzat.

4.- Ikasleak, beranduen, defentsa egiteko eskatutako data baino hamabost egun lehenago eman beharko dio GrALa tutoreari. GAUR bidez defentsaren eskaria egingen da. Letren fakultatearen web gunean GrALerako argitaratutako egutegiarekin bat etorrita eta inoiz ez da izango defentsa baino hamabost egunetatik beherakoa. Epe hori bete ezean, ez da eskaria onartuko. GrALaren defentsa eskatu eta gero, mezu elektronikoa jasoko du ikasleak ADDI plataformaren bidez bere lana kargatzeko, epaimahaiko kideei banatuko bazaie.

6. artikulua. Epaimahaia.

1.- Epaimahaikideak, bai titularrak nola ordezkioak, graduan irakaskuntzarik duten sailletako jakintza arloek izendatuko dituzte eta akademi ikasturte beteko iraupena izango (deialdiak: otsaileko aurreratua, uztaileko ohikoa eta iraileko ezohikoa). Epaimahaia tutorearen eremuko kideek edota antzeko arloetako kideek osatu ahal izango dute.

2.- Epaimahaia hiru kidek osatuko dute, GrALeko tutorea eta ordezkio bat zenbatu gabe.

3.- Jakintza arlo bakoitzak behar beste epaimahai izendatuko ditu aurreikusitako GrALen kopurua aintzat hartuta eta aurkezpen eta defentsarako ikasleek aukeratutako hizkuntzaren arabera. GrALen defentsa egiaztapenik behar duen hizkuntza batean egingo denean, epaimahaiko kide guztiek izan beharko dute egiaztapen hori, UPV/EHUK ezarritako aukeraren baten bidez.

4.- Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira. Irakaskuntza kategoria eta antzinatasunaren irizpidea baliatuko da epaimahaiburua eta idazkaria izendatzeko.

7. artikulua. Gradu amaierako lanaren defentsa

1.- Gradu amaierako lanaren defentsa egiteko ikasleek bertaratu egin

beharko dute defentsa egiteko zehazten den tokira.

2.- Tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoaren arabera graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahalko da lana, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola ere, Gradu Amaierako Lana autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

3.- GrALaren defentsa ekitaldi publikoan egingo da, GAUR plataformaren bidez behar bezala iragarritakoan. Ikasleak defentsa egiteko 15 minutu izango ditu gehienez, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Gero, epaimahaiko kideen galdera, argibide eske, komentario edo iradokizunei erantzun beharko die. GrALaren defentsa, aurkezpena ere barne, epaimahaiaren esku hartzea eta ikasleen erantzuna ez dira 30 minututatik gora luzatuko.

8. artikulua. Ebaluazioa eta kalifikazio

1.- Ikasleak behin aurkezpena egin eta gero eta tutoreak egindako txostena (ikus 2. ERANSKINA) ikusita, epaimahaiak kalifikazioa zehaztuko du, tituluaren egiaztatzekeo memorian GrALari esleitutako gaitasunak aintzat harturik.

2.- Lanaren ebaluatzeko, epaimahaiak, arautegi honi loturiko 3. eranskina baliatuko du. Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

- a) Aurkezteke (AKE).
- b) 0 – 4,9: Suspentso (S).
- c) 7,0 – 6,9: Nahiko (N).
- d) 7,0 – 8,9: Oso ongi (OO).
- e) 9,0 – 10: Bikain (B).

Deialdiren batean defentsa eskubideari uko eginez gero, "aurkeztu gabe" jarriko da.

Ohorezko matrikula emango ahal die ikastegiak, unean uneko defentsa

aldia amaituta, bere GrALaren defentsan 9,0 edo kalifikazio hoberik lortu duten ikasleei, beti ere ikasleen % 5eko muga inola ere gainditu gabe.

3.- GrAL ebaluatzeko eta kalifikatzeko prozesua honako urrats hauei jarraiki egingo da: 1. Epaimahaiaren saioa amaitu ostean, epaimahaiak argitara emango ditu kalifikazioak, datuak babesteko legeak agindutakoa aintzat hartuta. 2. Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak UPV/EHUren ebaluazio arauari jarraiki egingo dira, baina kasu honetan, ebaluazioa epaimahai batek egiten duenez, lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta bigarren instantzian, erreklamatu nahi izanez gero, ikastegiko erreklamazio batzordeak ebatziko du; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari. 3. Prozesua amaituta, kalifikazioak GAUR aplikazioan jarriko dira, ohorezko matrikula emateko proposamenak izan ezik. 4. Epaimahaiak iritziko balu lan batek ohorezko matrikula merezi duela, horretarako proposamena egingo dio idazkaritza akademikoari, defentsa egiteko aldia amaitu eta gero, ohorezko matrikulak eman daitezen, arautegi honen 8. artikuluko 2. puntuaren ezarritako ehunekoan. Proposatutakoaren kopurua litezkeen ohorezko matrikulak baino handiagoa balitz, espediente akademikoaren alde jokoda.

4.- Ikasleak gainditzin ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak emangodizkio txosten batean, lana berriz ebaluatzen denerako. Tutoreari ere bidaliko zaio txostenaren kopia bat.

5.- Nolanahi ere, GrALeko kalifikazioak espediente akademikoan jaso behar dira beranduen, kasuan kasuko deialdia amaitu eta hurrengo 15 egunetara.

6.- Epaimahaiburuak bere saileko idazkaritzan aurkeztuko du tutorearen GrAL-i buruzko txostena eta ebaluaziorako matrizea (2 eta 3. eranskinak) bi urtetan zehar bertan artxibatuko baita.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetan aurreikusi ez den edozein gai edo argitzen ez den edozein zalantza argitzeko eskumena UPV/EHUren Letren Fakultateko akademia antolakuntzako batzordeak izango du.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Honako arautegi hau urtero berrikusiko da, berori garatu edo aplikatu bitartean sor litezkeen problemakebaztearren.